

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure proiektuak ondo funtzionatzeko, hainbat funtsezko jarduera beharrezkoak dira. Lehenik eta behin, app-aren ekoizpena eta garapena zaindu behar ditugu: diseinua eta eguneraketak ondo antolatuta egon behar dira, erabiltzaileek esperientzia hobetzeko. Horrez gain, gertatu daitezkeen arazo teknikoak konpondu behar ditugu, bai erabiltzaileek izan ditzazketen arazoak, eta baita tabernekin eduki ditzazketenak ere.



Beste alde batetik, plataforma edo sareko jarduerak ere funtsezkoak dira: tabernekin akordioak lortu, haien eskaintzak kudeatu eta aplikazioaren bidezko ordainketak kontrolatu behar ditugu. Jarduera batzuetan kanpoko enpresen laguntza erabil dezakegu, adibidez marketing-ean edo publizitatean, baina app-aren diseinua eta kontrol teknikoa gure gain edukiko ditugu, sortu daitezkeen arazoak konponduz.

Azkenik, gure lehentasunak honako hauek izango dira; lehenik aplikazioak ondo funtzionatzea, eta hori lortutakoan ahalik eta taberna gehienaren artean zabaltzea eta gure aplikazioaren marketing-a indartzea.